Hizkuntzen erabilera sare sozialetan. Euskal Herria

Definizioa	
Sare sozialen erabiltzaileek zein hizkuntza erabiltzen duten neurtzen du adierazle honek.	
Hedadura	
Euskal Herria	
Aldagaiak eta kategoriak	
• **Eremu geografikoa:** Euskal Herria, EAE, Nafarroa eta Iparraldea • **Hizkuntza:** - Euskara - Gaztelania/frantsesa: gaztelania EAEn eta Nafarroan eta frantsesa Iparraldean - Ingelesa edo beste bat • **Erabilera**: % 0, % 10, % 25, % 50, % 75, % 100	
Azpi-adierazleak (gurutzaketak)	
Hizkuntzen erabilera sare sozialetan adinaren arabera	
Iturria	
Inkesta Soziolinguistikoa	
Iturriaren ezaugarriak	Inkesta Soziolinguistikoa aztertzen duen unibertsoa Euskal Herriko hamasei urte edo gehiagoko biztanleek osatzen dute. Inkesta Soziolinguistikoak lau esparru hauen datuak neurtzen ditu: euskara-gaitasuna, euskararen transmisioa, euskararen erabilera eta euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera. Inkesta Soziolinguistikoa estatistika ofiziala da, eta 020703 kodearekin dago jasota Euskal Estatistika Planean. Lehen inkesta 1991n egin zen. Lehenengo hiru inkestak aurrez aurre egin ziren, baina 2006tik aurrera telefonoz egitea erabaki zen.
Iturriaren arduraduna	Inkesta Soziolinguistikoaren arduradunak Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Nafarroako Gobernuko Euskarabidea eta Iparraldeko Euskaren Erakunde Publikoa dira.
Lehenengo datua eta maiztasuna	**Lehenengo datua**: sare sozialetan erabiltzen den hizkuntzari buruz lehen aldiz 2011n galdetu zen. **Maiztasuna:** bost urterik behin galdetzen da.

Lagina eta akats-tartea	Azken datu-bilketa 2016an egin da, telefono bidez eta galdetegi egituratua eta itxia erabiliz. Laginketa polietapikoa izan da, eta inkestak egiteko, etxebizitzen aukeraketa geruzatua egin da, gune soziolinguistikoaren eta udalerriaren arabera. Lurralde bakoitzean, 16 urte edo gehiagoko biztanleen arabera haztatu dira emaitzak, sexua, adina eta euskaldunen zein ez euskaldunen banaketa kontuan hartuta. 2016ko VI. Inkesta Soziolinguistikoan 8.200 inkesta egin dira guztira: 4.200 EAEn, 2.000 iparraldean eta 2.000 Nafarroan. Euskal Herriko lagin osoaren akats tartea ± % 1,4koa da % 95,5eko konfiantza mailarako eta p=q=% 50. Konfiantza maila bererako erkidegoka laginketa-errorea honakoa da: EAEn ± % 1,9koa, Nafarroan ±% 2,9koa eta Iparraldean ± % 2,3koa. Euskal Autonomia Erkidegoko lagin osoaren akats-tartea ± % 1,9koa da % 95,5eko konfiantza mailarako eta p=q=% 50. Konfiantza maila bererako lurraldekako laginketa-errorea honakoa da: Araban ± % 4koa, Bizkaian ± % 2,8koa eta Gipuzkoan ± % 3koa. Nafarroako lagin osoaren akats-tartea ± % 2,9koa da % 95,5eko konfiantza mailarako eta p=q=% 50. Konfiantza maila bererako eremukako laginketa-errorea honakoa da: Eremu euskaldunean ± % 4,3koa, Eremu mistoan ± % 3,9koa eta Eremu ez euskaldunean ± % 5,5ekoa. Iparraldeko lagin osoaren akats-tartea ± % 2,3koa da % 95,5eko konfiantza mailarako eta p=q=% 50. Konfiantza maila bererako eremukako laginketa-errorea honakoa da: BAMen ± % 3,7koa, Lapurdi (BAM gabe) ± % 3,7koa eta Nafarroa Beherean-Zuberoan ± % 4,5ekoa.
Informazio osagarria	
Argitalpenak eta txostenak	http://www.euskadi.eus/informazioa/ikerketa-soziolinguistikoak/web01-a2lingu/eu/ http://www.euskarabidea.es/euskara/euskara-nafarroan/datu-sozio-linguistikoak
Galdesorta(k)	http://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_291/opt_1/tipo_8/ti_Inkesta_soziolinguistikoa/temas.html